OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2017KO MAIATZAREN 25an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**Olaberrian, 2017ko maiatzaren 25ean, arratsaldeko 18:05 izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea den, Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O), Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Maider Agirre Mugika (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O) eta Mikel Etxarri Juanes (O.E.O), Aritz Arantzegi Areitio (O.H.E.) eta Iñigo Sarasola Aranzasti (EH-BILDU) zinegotziak.**

**Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arévalo Benito Idazkari Kontu-hartzaileak.**

**Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.**

**AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

- 2017ko martxoaren 16ko Ohiko Batzarraren akta.
- 2017ko apirilaren 6ko Ez-Ohiko Batzarraren akta.

Aktak bozkatzen dira, biak aho-batez onartuz.

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO CELEBRADO EL 25 DE MAYO DE 2017.**

**En Olaberria, a 25 de mayo de 2017, siendo las 18:05 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O), y los concejales, Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Maider Agirre Mugika (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O), Mikel Etxarri Juanes (O.E.O), Aritz Arantzegi Areitio (O.H.E.) e Iñigo Sarasola Aranzasti (EH-BILDU) .**

**Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arévalo Benito.**

**Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.**

**APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES.**

- Acta de la Sesión Ordinaria del 16 de marzo de 2017.
- Acta de la Sesión Extraordinaria del 6 de abril de 2017.

Se procede a la votación, aprobándose ambas por unanimidad.

**ALKATETZAKO GAIAK**

**Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 51/2017etik 82/2017 bitartera.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

BILDU taldekoa den Iñigo Sarasola jaunak 52/2017 dekretuaren inguruan, hormigoia baita argiteria ere Amoskategiraino heltzea proposatzen du.

Alkateak ondo dagoela deritzo eta sakonago aztertuko dela.

**2017ko apirilaren 6ko 60/2017 alkatetza ebazpenaren berrespena.**

Gaia azaldu zitzaien udal-kideei joan zen batzorde informatzailean.

Aipatu dekretuan, era motz batean azalduta, 83/2017 prozedura murritza erreferentziadun epaian Olaberriko Udalaren parte hartzea erabaki zen, baita espedientea Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epaitegira igortzea ere.

Agiri guztiak dagokion espedientean daude.

Proposamena bozkatzen da, gehiengo absolutuz onartzen delarik BILDU taldeko zinegotziaren abstentzioarekin.

**TEMAS DE ALCALDÍA**

**Dar cuenta de los decretos de alcaldía.**

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 51/2017 al 82/2017.

Los corporativos quedan al corriente.

El concejal del grupo BILDU Iñigo Sarasola, en relación al decreto 52/2017 , propone que el hormigón se tire hasta Amoskategi, además del alumbrado.

El Alcalde le responde que lo ve bien, aunque se analizará más en profundidad.

**Ratificación de la resolución del alcaldía 60/2017, de 6 de abril de 2017.**

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

En dicho decreto,expuesto de manera sucinta, se acordaba la personación del Ayuntamiento de Olaberria en el juicio de referencia Procedimiento abreviado 83/2017, así como la remisión del expediente al Juzgado de lo Contencioso Administrativo n.º1 de Donostia.

Toda la información obra en su correspondiente expediente.

Se procede a la votación quedando la propuesta aprobada por mayoría absoluta, con la abstención del concejal del grupo

BILDU taldekoa den Iñigo Sarasola jaunak hitza hartzen du esanez, trafikoa arautzeko jarritako barrerak aski bete duela bere funtzioa, bere zentzua galduz.

BILDU.

El concejal del grupo BILDU Iñigo Sarasola, toma la palabra para decir que la barrera instalada en el barrio de Ihurre para el control del tráfico ya ha cumplido su función y ha dejado de tener sentido.

Alkateak dio egun barrera igarotzeagatik arau-haustea egiten duten pertsonen kopurua asko jaitsi dela, Sarasola jaunak esandakoarekin bat eginez.

El Alcalde afirma que actualmente ha descendido en gran medida la gente que infringe la norma pasando por la barrera, y que está conforme con lo dicho con el Sr. Sarasola.

## OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK

## HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES

**3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.**

**Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.**

Hauek dira joan zen batzorde informatzailean udal-kideei aurkeztutako fakturak:

Estas son las facturas presentadas a los corporativos en la pasada comisión informativa:

| | | |
|---|---|---|
| EXCAVACIONES GAÑERA S.L. | FRA. 26/2017 | 5.115,88 € |
| SASOI ERAIKUNTZAK S.L. | FRA. 2017000051 | 80.472,94 € |
| EULEN S.A. | FRA. 3093017 | 4.765,33 € |
| IZFE S.A. | FRA 2017/251 | 5.551,12 € |
| CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA S.L. | FRA. FV17/0049 | 18.090,61 € |
| SOROA ARQUITECTOS S.L.P. | FRA. 28 | 3.411,87 € |
| GARMENDIA TEJAS Y CUBIERTAS S.L. | FRA. 2017/034 | 3.884,10 € |
| E.IGARTUA ESTUDIOS Y PROYECTOS S.L.P. | FRA. 18 | 3.535,75 € |
| GOIMEN ELKARTEA | FRA. 16/17 | 3.698,53 € |
| SASOI ERAIKUNTZAK S.L. | FRA. 2017000043 | 4.181,47 € |
| EULEN S.A. | FRA. 3085052 | 4.765,33 € |
| SASOI ERAIKUNTZAK S.L. | FRA. 2017000079 | 102.641,25 € |
| GOITU ERAIKUNTZAK S.L. | FRA. 34 | 76.052,53 € |

Fakturak bozkatzen dira, gehiengo absolutuz onartzen direlarik Bildu taldeko zinegotziaren abstentzioarekin.

Se procede a la votación, quedando aprobadas por mayoría absoluta, con la abstención del concejal del grupo Bildu.

**Diruzaintzaren egoera: informazioa.**

**Situación de tesorería: información.**

Udal-kideei, 2017ko martxoaren 6ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 6 de marzo de 2017.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira, **3.480.772,06 euro** ditu.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **3.480.772,06 euros.**

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

Los corporativos quedan al corriente.

**3-2017 kreditu aldaketa, kreditu txertaketa modalitatean.**

**Modificación de créditos 3-2017 en la modalidad incorporación de créditos.**

Joan zen batzorde informatzailean, udal-kideei ondorengo kreditu txertaketa proposamena

En la pasada comisión informativa se presentó a los corporativos la siguiente

aurkeztu zitzaien:

propuesta de incorporación de créditos:

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du aho-batez:

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda por unanimidad:

<u>LEHENENGOA</u>: Onarpena ematea 3-2017 zenbakia duen Kreditu Aldaketa Espedienteari, kreditu txertaketa modalitatean, Udalaren 2017ko aurrekontuaren barruan, ondoren adierazitako eran:

<u>PRIMERO</u>: aprobar el Expediente de Modificación de Créditos, nº 3-2017 en la modalidad de incorporación de créditos, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2017, en los siguientes términos:

**KREDITU TXERTAKETA PROPOSAMENA**

| Kod. | Gastuen partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| c | 1 0000.601.153.21.04 2015 | IHURRE AUZOKO AZPIEGITURAK | 1.072.192,26 |
| b | 1 0000.226.334.00.06 2016 | KULTUR EKINTZAK | 875,80 |
| b | 1 0000.227.151.00.07 2016 | ARKITEKTOEN ZERBITZUAK | 756,08 |
| b | 1 0000.227.151.01.07 2016 | APAREJADOREEN ZERBITZUAK | 1.297,54 |
| b | 1 0000.481.230.00.02 2016 | GIZARTEKO DIRULAGUNTZAK | 100,00 |
| b | 1 0000.601.153.20.02 2016 | IHURRE AUZOKO OBRAK | 173.581,73 |
| b | 1 0000.622.337.10.01 2016 | ADINEKO LOKALEKO BEROKETA SISTEMA | 41.791,53 |
| b | 1 0000.622.337.10.02 2016 | ADINEKO JENDEENTZAKO LOKALA-LUDOTEKA | 200.000,00 |
| b | 1 0000.626.920.00.01 2016 | ORDENAGAILU ETA INPRESORA | 819,17 |
| | | | |
| | | **TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA** | **1.491.414,11** |

**KODEEN AZALPENA**

a) Aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan onartutako transferentziak eta kreditu gehigarriak.

b) Xedatutako gastuen kredituak, obligazioa onartu gabe dutenak.

c) Gaitutako kredituak eta finantzaketa lotua duten kredituak.

d) Kapital eragiketen kredituak.

**2017ko aurrekontuko kreditu txertaketaren finantzaketa**

| Kod. | Sarreren partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| a | 2 0000.870.000.00.02 2017 | DIRUZAINTZAKO GERAKINA-KREDITU TXERTAKET | 1.491.414,11 |
| | | **FINANTZAKETA GUZTIRA** | **1.491.414,11** |

**KODEEN AZALPENA**

a) Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina.

b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina.

c) Sarrera konpromisoak.

d) Sarrera berriak edota likidatutako sarrera handiagoak.

e) Aurreko ekitaldian aurrekontuan aurreikusitako epe luzerako maileguak, formalizatu gabeak.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du gehiengo absolutuz, Bildu taldeko zinegotziaren abstentzioarekin:

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda por mayoría absoluta, con la abstención del concejal del grupo Bildu:

BAKARRA: Onarpena ematea 11/2016 zenbakia duen Kreditu Aldaketa Espedienteari, kreditu transferentzia modalitatean, Udalaren 2016ko aurrekontuaren barruan.

ÚNICO: aprobar el Expediente de Modificación de Créditos, nº 11/2016 en la modalidad de transferencia de créditos, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2016.

**ONGIZATE SOZIALA**

**BIENESTAR SOCIAL**

**Etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren kontratazioa: pleguen onarpena eta kontratazio prozeduraren hasiera.**

**Contratación del servicio de ayuda a domicilio: aprobación de los pliegos e inicio del procedimiento de contratación.**

Joan zen batzorde informatzailean udal-kideei gaiaren berri eman zitzaien.

Se informó a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Bertan, aipatu jarduketaren kontratazio prozedura arautuko duten baldintza administratiboen zein plegu teknikoen agiria aurkeztu zen, dagokion espedientean daudelarik.

Se expuso a los corporativos el pliego de cláusulas administrativas particulares además de los pliegos técnicos que han regir el procedimiento de contratación de la referida actuación, que obran en su correspondiente expediente.

Gaia behar adina aztertu ondoren, honako hau adosten da:

Tras estudiar el tema suficientemente se acuerda lo siguiente:

LEHENENGOA: Kontratazio prozedurari hasiera ematea erabakitzen da.

PRIMERO: Se acuerda dar inicio al procedimiento de contratación.

BIGARRENA: Onartzen dira aipatu kontratazio prozedura arautuko duten baldintza administratiboen zein plegu teknikoen agiriak.

SEGUNDO: Se acuerda aprobar los pliegos de cláusulas administrativas particulares que han regir el procedimiento de contratación de la referida actuación.

HIRUGARRENA: Erabakitzen da aurrean aipaturiko jarduketa egiteko gastua onartzea eta kontratazio prozedurari hasiera ematea.

TERCERO: Se acuerda aprobar el gasto correspondiente y dar inicio al procedimiento de contratación de la citada actuación.

Sarasola jaunak hitza hartzen du honako hau esateko: Plegutan, kontratuaren iraupena bi urterako izango dela jasotzen da. Epe hori

El Sr. Sarasola toma la palabra para decir lo siguiente: en los pliegos se recoge que el contrato sería para dos años. Propone

irautean, herriko jendea kontratatzeko aukera aztertzea eskatzen du.

que una vez transcurridos esos dos años, se analice la posibilidad de contratar a gente del pueblo.

Udalkideen artean gaiari buruzko elkarrizketa baten ondoren, Alkateak bukaera ematen dio gaiari esanez, behin epe hori igaro, aukera hori aztertuko dela.

Tras una conversación al respecto entre los corporativos, el Alcalde concluye diciendo que una vez transcurrido ese tiempo, se analizará esa posibilidad.

**Galdera eta erreguak**

**Ruegos y preguntas**

Aritz Arantzegi, O.H.E. taldeko zinegotzia:

El concejal del grupo O.H.E. Aritz Arantzegi:

- Lanpostuen balorazioa:

Galdetzen du ia langileei lanpostuen balorazioari buruz eskatu zuten informazioa helarazi zaien.

- Valoración de los puestos de trabajo:

Pregunta si se les ha dado la información que solicitaron a los trabajadores de la valoración de puestos de trabajo.

Udal idazkariak balorazio txostena eman zaiela erantzuten dio.
Une hauetan, txosten hori egin zuen pertsonarekin harremanetan jartzea saiatzen ari dela, honek, bai langileei baita udal-kideei ere balorazio horren edukia azaldu diezaien eta sor daitezken zalantzak argitu ditzan.

La secretaria municipal le responde que si se les ha dado el informe de valoración.
Que en estos momentos está intentando ponerse en contacto con la persona que suscribe dicho informe para que explique tanto a los trabajadores como a los corporativos el contenido concreto de esa valoración y responda todas las dudas que pueda suscitar.

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 18:20-ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du**

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 18 horas y 20 minutos, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**